

OIARTZUN / Flyschetara hurbiltzeko dokumentala eskainiko da bihar liburutegian

Asier Hilario geologoak eta Alberto Gorritiberea zine-zuzendariak egindako Flysch, haitzen hitza dokumentala ikusteko aukera izango da bihar, osteguna, Manuel Lekuona bibliotekan, 19:00etan.

Hilario eta Gorritibereak flyschei buruzko dokumentala egin dute. Zumaiako flyscha abiapuntutzat hartuta, munduan barrena bidaia egiteko aukera eskaintzen du dokumentalak: Islandia, Wyoming (AEB), Yellowstone (AEB) eta Yucatango (Mexiko) flyschak ezagutzeko aukera izango du ikusleak. Gainera, mundu mailan geologian, kliman, astrobiologian, metereologian, biologian, antropologian edota ekonomian adituak diren 25 lagunek parte hartu dute dokumentalean. Euskaraz eta gazteleraz da lana.

Egileak bertan egongo dira

Hilario eta Gorritiberea biharko emanaldian bertan egongo dira. Hilariok sarrera gisako bat egingo du eta gero, 55 minutuko iraupena duen dokumentala ikusteko aukera izango da. Bukatutakoan, bertaratutakoek nahi dutena galdetzeko eta eztabaidatzeko aukera izango dute. Guztira, ordu eta erdi inguruko saioa izango da